

BELAUNALDI ARTEKO ESPERIENTZIAK HEZKUNTZA EREMUAN AZTERGAI: KOHESIO SOZIALA AHALBIDETZEN DUTEN BIDEAK AZTERTZEN

Tesiaren egilea: Amaia Eiguren Munitis

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Tesi-zuzendaria: José Miguel Correa Gorospe eta Naiara Berasategi Sancho

Tesiaren laburpena:

Hezkuntza formalaren inguruneak testuinguru ezin hobea eskaintzen du belaunaldi desberdinen ikuspegia lantzeko. Izan ere, eskolan gertatzen diren belaunaldien arteko (BA) esperientziek bizitza osorako hezkuntza-ideologia sortzen laguntzen dute, ikasketa bidirekzionala sustatzen baitute, eta adinduen eta ume eta gazteen parte-hartze aktiboa elikatzen baitute.

Horrenbestez, ikerketa-lan honek bost helburu izan ditu:

- (1) Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza formalean burutu diren edo martxan dauden belaunaldi arteko esperientziak identifikatzea.
- (2) Belaunaldi arteko esperientzien protagonisten bizipenak aztertzea.
- (3) Belaunaldi arteko esperientzietan parte hartzeak ikasleengan (10-21 urte bitartean) dituen eraginak arakatzea.
- (4) Belaunaldi arteko esperientzietan parte hartzeak adinduengan dituen eraginak aztertzea.
- (5) Belaunaldi arteko esperientzietan parte hartzeak profesionalengan dituen eraginak aztertzea, horiek komunitatean duten eragina ere jasoz.

Ikerketa bi fase nagusitan banandu da. Lehenengo fasean, belaunaldi arteko esperientzien presentzia eta izaera arakatu da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalaren esparruan. Bigarren fasean, berriz, belaunaldi arteko esperientzietan arakatu da. Fase honetan 337 pertsonak parte hartu dute, ikasleak ($n = 254$), adinduak ($n = 68$) eta profesionalak ($n = 15$) barne.

Datuak jasotzeko teknikak askotarikoak izan dira, hala nola test balidatuez osatutako galdera-sorta, behaketa parte-hartzailea, marrazkiak, banakako eta taldeko elkarrizketak, eztabaida-taldeak, hausnarketa introspektiboak, egunerokoak eta argazkiak.

Lortutako emaitzek agerian uzten dute BA esperientzien presentzia eskasa dela EAEn hezkuntza formalaren testuinguruan, nahiz eta ikerketa honen bitartez baieztatu den BA esperientzietan parte hartzeak adinduengan eta ikasleengan eragin positiboak dituela. Horrenbestez, profesionalen aburuz, BA esperientziak baliagarriak dira belaunaldien artean elkarri laguntzeko, harremanak sortzeko eta belaunaldien arteko elkartasuna sustatzeko, kohesio soziala ahalbidetzen duten bideak erakintzen laguntzen baitute.

Azkenik, doktorego-tesi honek Euskal Autonomia Erkidego mailan hezkuntzaren esparruan gauzatzen diren BA esperientzien gaineko prisma poliedrikodun begirada eraikitzen du eta BA esperientziek duten esku-hartze sozialarekiko aukeren gaineko ezjakintasunari aurre egiten dio.